

ZENBAT BURU

Nieves Loiola

ERREPORTAIA

GARE,
Irratzaletuen
Elkartea

UDALETXETIK

Ekainaren 18ko
Udal Plenoa

BERBETAN

Santi Urain
zesta puntista
Orlondon

BARRREN

1998ko ekainaren 26a
V. urtea - 242. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



GARE irratzaletuak
**Hugarik gabeko
komunikazioa**

“Bide zuzena hartzen denean, mundua txiki bihurtzen da” anonimoa



JAKIN



a k a d e m i a

INFORMATIKA

- Ofimatika
- Programazio
- Aurkezpen grafikoak
- hizkuntzak
- Internet

KONTU ETA MERKATAL GESTIOA

- Nominak eta gizarte segurantza
- Kontabilitatea
- Fakturazioa

MEKANOGRAFIA

KLASE PARTIKULARRAK

- Matematika
- Fisika
- Kimika
- Kontabilitatea
- Matematika finantzieroa
- Literatura
- Latina
- ...

TALDE MURRIZTUAK • KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Arregitorre, 6 • Tel: 943 74 08 95 **ELGOIBAR** / Santalaitz, 6 • Tel: 943 76 00 68 **BERGARA**


ZABALETA BASERRIA

Etxean hazitako nekazal produktuak

AMAIA FRUTADENDA
Merkatu Plaza, 12/13

Kalitatezko produktuak, naturalak eta konfidantzazkoak

Green Market Block
Solari 12
Bergara
02801





NIEVES LOIOLA

Barruko soinua

Duela denbora asko, gustuko nuen pertsona batek esan zidan ipuin edo antzerako bat kontatuko di-zuet.

Ba omen zen behin ahuntz txiki eta polit bat egunero, egunsentitik iluntzeraino, mendiko zelai berde ederretan jaten egoten zena bere amaren ondoan. Egunean zehar soinu eder eta polit bat entzuten zuela konturatu zen. Beti egoten zen begira soinu hura nondik etorriko eta, bat-batean, aurreko mendi tontoretik zetorrela ohartu zen.

Mendi gailur hartara igotzeko bere buruaren jabe noiz izango irrikaz bizi izan zen luzaro, eta guztiei bezala, ahuntzari ere azkenean iritsi zitzaion egun hura. Dena utzi eta mendirantz abiatu zen.

Egun batzuk pasa ondoren, bere ametsa egia bihurtu zen, mendi tontorrean aurkitzen baitzen. Baina, zer pasako eta soinu eder hura ez zen mendi hartan entzuten, honen aurreko mendi haundiago batetik

zetorrela konturatu zen. Beraz, animo guztiekin mendi haundi hartara abiatu zen.

Egun batzuen buruan iritsi zen eta han ere gauza bera zitzaion; soinua beti mendi haundiago batetik zetorren. Baina ahuntzak, azkeneraino iritsi nahi zuenez, bideari jarraitu zion, mendirik haundienaren gailurrera iristea lortu zuen arte. Bertan, soinu zoragarri hura bere barruan zegoela ohartu zen, eta ez mendi gailur hartan.

Istorio hau irakurri eta gero galdera batzuk etortzen zaizkit burura. Ez ote gabiltza denok urruti entzuten den musika paregabe horren bila? Urrutiko soinu horrek ez ote digu gure barruko soinu

ederra isiltzen?

Egia esan, ni ziur nago isiltasunean jartzen baldin bagara, gure barrura begira, denok entzungo dugula sinfoniaren bat, batzuk klasikoa eta beste batzuk modernoak, baina denok daukagu musika piska bat gure barrenean. Musika hori entzuteko denbora apur bat besterik ez dugu behar.

"Egia esan, ni ziur nago isiltasunean jartzen baldin bagara, gure barrura begira, denok entzungo dugula sinfoniaren bat, batzuk klasikoa eta beste batzuk modernoak, baina denok daukagu musika piska bat gure barrenean"

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxe: 943 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaita Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidar Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Nieves Loliola,

Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo,

Jon Suarez, Anjel Ugarteburu,

Iban Urizar, Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1133-021X

*Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.*



Elgoibarko Izarrak iparra galdu du

Elgoibarko Izarra euskararen aldeko erakundeak uko egin dio Euskal Presoak Euskal Herrira kanpainarako sinadura emateari.

Euskara dela bere borrokarako gai bakarra aitzakitzat hartuz, ez du inolako keinurik egin Euskal Herri euskaldun baten aldeko borrokaren ondorioz beren etxeetatik milaka kilometrora daudenen alde.

Lotsagarria deritzogu Elgoibarko semeak jasaten ari diren egoeraren aurrean hain aitzakia kaxkarra jartzeari.

Herri honek egunero jasaten dituen erasoak ez al dute eraginik gure hizkuntzaren egoera kaxkarrean?

Estatu espainiarraren "azken erasoak" ez al du Euskal Herria "Pais Vasco" bihurtzeko helbururik?

Euskal Presoak euskararen alde izandako joera, ez bairik gabe, zuoi dirulaguntzak ematen dizkizuen erakundeetako hainbat politikorena baino askoz sendoagoa eta tinkoagoa da eta izan da.

Bukatzeko, Elgoibarko Izarrako kideei, gure hizkuntza zahar honen aldeko borrokan zein egon diren alde bakoitzean pentsatu eta hausnartzeko eskatu nahi genieke.

**Sabin Arakistain, Jorge Hernando,
Antxon Artetxe, Miren Agurtzane
Bilbatua, Asensio Otegi eta
Iñaki Odriozola.**

Gazte Asanblada

Gaztetxeko aizokideei

Eskeutiz honen bidez, joan den ostegunean izandako kontzertuak sortu zituen arazoez jabetzen garela adierazi nahi dugu. Gure asmoa kontzertuari hasiera lehenago ematea bazen ere, zenbait arazo tartean, ezin izan genuen zegokion orduan abiarazi, nahi baino beranduago bukatu zelarik, kontuan izanik hurrengo eguna lane-guna zela.

Ez da oso ohikoa lanegunetan ekitaldiak antolatzea gurean, hau izan da urtebetean bakarra eta herriko jaietan izan ezean, ez dugu asmorik astegunetan horrelakoak sarritan egiteko. Hala ere, berriz horrelakorik gerta ez dadin gure neurriak hartuko ditugula jakinarazi nahi dizuegu.

Gogora ekarri nahi dizuegu bide batez, Gaztetxeak baduela buzoi bat kexa, galdera edo zernahitarako. Inolako arazorik edo esatekorik bazenute, helarazi egiguzue, guk, inolako bitartekorik gabe, zuen berri izan eta arazorik balego, berauek azter eta konpon ditzagun.

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

GALDERAK

◆ Herritar batek jakinarazi digu Altzolako zentral hidraulikoa berriz martxan jartzeko asmoa dagoela. **Dagokionari galdera bat baino, eskaera bat egin nahi dio:** “Arrain asko, korrokoia eta aingirak batez ere, arrautzak jarzera joaten dira ibaian

gora. **Zentralean arraintzako eskala bat eginez gero, arrainek aukera izango lukete zentrala gainditu eta dagokion lekura iristeko. Eskaera hau aintzat hartzeko eskatu nahi diot zentrala martxan jarri behar duen enpresari.”**

KEXAK

◆ Mutil batzuk etorri dira joan den asteazken arratsaldean Ursandiko parkean gertatu zitzaiena salatzen. **Ping-pong-ean jolasten zebiltzala, norbaitek alde egiteko esan zien.** Haurrak, noski, mindu egin ziren eta herria denona dela gogorarazi nahi diote herritar horri.

◆ Emakume batek deitu digu San Frantzisko kalean eta Santa Ana kalean gertatu zaiona kontatzeko: **“kalean gindoazela etxe bateko leihoan zigarro bat erretzen zegoenak zigarro punta, piztuta, kalera bota zuen eta ia-ia gainera erori zitzaigun.** Bi aldiz gertatu zait gauza bera, San Frantzisko kalean behin eta Santa Anan beste batean. Zigarroak kalera botatzen badituzte, gutxienez itzalita izan dadila. Eta botatzen ez badituzte, hobe”.

TXALOKAK

◆ San Juan bezperako ‘Sua, dantzak eta kantua’ ikusten egon ziren pertsona batzuek **Udal Txistulariak, Itxaropena abesbatza eta Haritz Dantzari Taldea** txalotu nahi dituzte. “Benetan gustura egon ginen Plaza Handian eta urtero egin beharko litzatekeen ikuskizuna dela uste dugu”.

BAI, ESAN?



ALKOHOLIKO ANONIMOEN ELKARTEA

Aste honetako ‘Bai, esan?’ ataleko deia **Alkoholiko Anonimoen Elkarteko kide bati** egin diogu. Izenak dioen bezala, elkarte honetako kideak anonimoak dira eta horregatik ez dugu ez bere izenik ez bere aurpeirik azalduko. Gaztea da eta duela sei urte hasi zen Alkoholiko Anonimoetan. Elkarte honek 13 urte bete ditu Elgoibarren eta taldeko helburuei buruz galdetu diogu kide honi.

- **Noiz eta zergatik sortu zen Alkoholiko Anonimoen Elkarte Elgoibarren?** - Duela 13 urte sortu zen. Ordura arte elgoibartarrak Eibarko Alkoholikoen Elkartera joaten ziren baina talde handi xamarra zela ikusita Elgoibarren elkartea erabaki zuten. Hasieran dozena erdi bat lagun izango ziren baina azken aldean zifra nahiko establea izan da, beti ere, zertxobait gora egin duen larrik. Nire ustez, gorakada honen arrazoia, nahiz eta motela izan, alkoholismoak tabu izaera hori galdu duelako izan da eta gaixotasuna dela onartzen du jendeak. Taldean ere gaixotasun bezala tratatzen dugu, hori da gure errekupeziarako giltza.

- **Zein da taldearen helburua?** - Ez gara alkoholak gizartean sortzen duen problematika konpontzen saiatzen, norbanakoarengan sortzen duen arazoa konpontzen baizik. Erabaki pertsonal baten bitartez, borondate argiarekin, nor bere burua infernu horretatik ateratzen saiatzen gara.

- **Zein dinamika du taldeak?** - Santa Klaran astean birritan biltzen gara. Normalean testu baten irakurketa egin ondoren eztabaida txanda irekitzen da. Bakoitzak bere iritzia ematen ditu. Denok izaten dugu zerbait emateko batzuetan, eta hartzeko ia beti. Elkartearen helburua, bakoitzak bere gaixotasunaren mekanismoak ezagutzuz, nor bere errekupeziaren ardura hartzea da, besteen laguntzarekin eta besteen esperientzia zeurea eginez. Dudatan dabilenak ez du errekupeziaririk lortuko.

- **Azken aldia gazte gehiago omen zaudete taldean.** - Bai, 30 urteen bueltan Elgoibarren bagaude dozena erdi lagun. Beste drogen aurrean gazteek erraz ematen diote edanari: legala da, merkea eta gurasoen aurrean errazagoa da mozkorraldi bat justifikatzea beste edozein droga hartzea baino. Alkoholaren kalteak oso epe luzera agertzen dira.

AHOLKULARITZA


BIKAIN
ASESORIA

Fiskala—Lanekoak
Kontabilitatea—Aseguruak

Antonio Arrillaga, 4 behea
Tel/Faxa: 943 74 45 57 - Tel. mobila: 970 49 72 36

Uhinaren artean nabigatzen

Uhin artean komunikatzen dira mundu osoko zaletuekin. Irratizaleek emisora propioak dituzte etxean eta, esaten dutenez, behin probatuz gero, izugarri engantxatzen duen afizioa da. Elgoibarren badago irratizaleen elkarte bat, GARE izenekoa. Gaur egun 12 kide ditu eta lehendakaria Txomin Zabaleta da. Pedro Muguruzan duten lokalean bildu gara eurekin. Bertan hainbat lehiaketatan irabazitako kopak dituzte eta horman, atzerriko herrialdeekin kontaktuak egiten dituztenean elkarri bidaltzen dizkioten postalak. *Isidoro, Sonrisas, Merlin, Beta 2, Sigma 2, Coyote eta Primavera*s-ek azaldu digute zer egiten duten irratizaleak.



GARE irratizaleen elkartearen sorrera 1992an. Gaur egun 12 kide dira.

Adolfo Martin, Roberto Sanchez, Jose Manuel Dobarro, David Mekolalde, Bernardo Cebrian, Jonathan Martin, eta Felix Dobarro 18 eta 50 urte bitarteko lagunak dira. Hauek, beste zenbait kideekin batera osatzen dute GARE, Elgoibarko Irratizaleen Elkartearen. Zaletasunak elkartu ditu eta gaur egun, gauero hitz egiten dute beraien artean irratia- ren bidez.

Adolfo Martinek esan digunez, "irratizale bat etxean emisora bat izan eta uhinetan ibiltzea gustuko duena da". David Mekolalderen hitzetan, "batzuri entzutea gustatzen zaie eta beste batzuri hitz egitea, hori bakoitzak aukeratzen du". Emisora bat eta komunikazioak izateko lizentzia behar dira irratizale izateko, "14.000 pta. balio duten emisora daude eta baita 400.000 pta.koak ere".

Irratizaleek etxean dituzten emisora garraiolarien izaten dituztenen berberak dira, "kamiolarien normalki premia izaten dutelako jartzen dute, informazioa jasotzeko edo larrialdien batean euren egoeraren berri emateko". Irratizaleen helburua mundu osoko jendearekin harremanak izatea da.

Denbora asko eskatzen duen zaletasuna

Bakoitza era batera hasten da irratizaleen munduan: lagun bidez, familian ikusi eta probatzea erabakita edo baita, Roberto bezala, premiak bultzatuta ere, "nire kasuan, lagun bat genuen etxean telefonorik ez zeukana. Harekin hitz egiteko walki-talkiekin hasi eta, konturatu orduko, irratia munduan sartu ginen". Guztiek aitortu digute irratia denbora asko eskatzen duela, "gertatu izan dira haserreak bikoteen artean. Izan ere, bi pertsonak ez dutenean afizio bera eta afizio horrek denbora eskatzen dizunean, normala da ezin ulertu eta haserreak sortzea". Azken batean, kontua, "neurria hartzea da. Egunero jardutea piska bat baino luzaro ibili gabe". Dena dela, guztiak datoz bat esatean behin hasiz gero, asko kostatzen dela emisora apartatzea, "batez ere kontaktu asko egiten ari zarenean".

Klabe pertsonalak

*Isidoro, Beta 2, Coyote, Merlín, Sigma 2, Sonrisas eta Primavera*s. Hauek dira gure lagun irratizaleek erabiltzen dituzten goitizenak. "Irratia beti gaitzizena eta izena erabiltzen dituzu baina sekula ez dira ematen abizenak, helbidea edo telefonoak. Guztiok jarraitzen dugun araua da".

Hitz egitea eta jendea ezagutzea da irratizaleen helburua. Esan digutenez, "garbi dago irratia bidez ezin duzula elkarrizketa pribaturik mantendu. Uhin bidez zaletu guztiak iristen zaie komunikazioa". Badaude bi gai debekatuak dituztenak: erlijioa eta politika. Bi gai hauei buruz sekula ez dute hitz egiten. Hortik aurrera, dena da libre.

Irratia bidez ahotsa dute zaletuek ezaugarri bakar eta berezia eta honen inguruan gertatu izan dira bitxikeriak.



“Irratizaletu bakoitzak gaitzizena dauka. Ezizen horren bidez jartzen dira harremanetan mundu osoko zale-tuekin”

Adolfok azaldu digunez, “behin irrati bidez ezagutu nuen pertsona batekin elkartzean, zer eta aspaldiko ezagunak ginen! Irratian ez da-eta inoiz izen-abizenik erabiltzen!”.

Eguneroko bizitzan harremanak egin eta jendea ezagutzeko orduan lotsatiak direnentzat benetan aproposa da, “ez zaituzte ezagutzen eta ez dizute aurpegia ikusten, beraz, askatasun osoz hitz egin dezakezu”. San Prudentzian badago mutil atzeratu bat irratia bidez ikasi duena hitz egiten, “mundu osoan ezagutzen dute”. Gertatu izan da bikoteak ere sortzea irratizaletuen artean, “ezagutzen dugu kasu berezi bat. Neska donostiarra da eta mutila Arjentinakoa, Tierra De Fuegokoa. Irratiaren bidez ezagutu eta ezkondu egin ziren”.

Argot berezia

Irratizaletuek pazientzia izan behar dute, “gerta daiteke egun batean denbora mordo bat pasatzea irratian eta ez egitea kontaktu bat bera ere”. Ez hori bakarrik, azaldu digutenez, hizkera edo argot berezia dute. Esate baterako, neskalaguna “x” da, gurasoak “los primerísimo”, anaia “fotocopio”, semea “harmónico”... Letrak ere modu berezi batez ahoskatzen dira, adibidez A, “alfa” esaten da. Hitz eta kode guztiak ikasi behar izaten dituzte irratizaletuek. Kodigoak unibertsalak dira baina hizkuntza bakoitzak bere argot berezia dauka. Mundu mailan hitz egiteko bakoitzak ezagutzen duen hizkuntza erabiltzen du. Davidek kontatu digunez, “behin, iparraldeko batekin kontaktatu nuen. Nik ez nekien frantsesik eta berak ez zekien ez ingelesik eta ez gaztelanirik. Euskaraz hitz egin genuen azkenean”.


24 orduko emisioa

GAREK urtero antolatzen du 24 orduko emisio lehiaketa AM modalitatean, inguruetako herrietako zaleentzat. Karakatera igo eta bertatik, 24 orduz segidan jarduten dute, ahalik eta kontaktu gehienak egiten, “jendeak deitu ahala zenbaki bat eman eta gero diploma bidaltzen zaie. Materiala ere zozketatzen da deitu dutenen artean. Aurten 1.402 kontaktu egin ditugu Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa, Errioxa, Burgos, Cantabria, Canariar irlak, Cadiz, Ceuta eta Melillatik jasotako deiei esker, baita Italia eta Frantziatik iri-tsitakoekin ere”. Elgoibartarrek 5 urte daramatzate lehiaketa hau antolatzen eta, esan digutenez, “gertatu izan zaigu Karakatera igo eta maiatza izan arren, dena zuri-zuri eginda ikustea, elurtuta eta, egia esan, horrenbeste orduz han goian egotea nahiko gogorra da”. Urtean zehar DX modalitatean (mundu osora zabaltzen diren deiak) beste lehiaketa bat egiten dute. Irailean, Nafarroara joan eta bertatik saiatuko dira mundu mailan ahalik eta kontaktu gehien egiten.

Horrez gain, GARE elkartekoek laguntza eskatzen dieten ekintza guztietan parte hartzen dute irratiarekin: Duatloian, Enduro txapelketan, 1996ko Kilometroak-en ere izan ziren...

Zaletasunak elkartu zituzten eta esan dutenez, “ongi eramatea beharrezkoa da: egunero hitz egin, asteburuan elkartu, urtean pare bat afari egin... horiek guztiak mantentzen dute bizirik elkarte”.





Osasunean adituak

GAIA:

Urak sortutako ekzema

Osasun Zentroko Roberto Balanzategi medikuak esan digunez, *Ekzema Dishidrotikoa* edo *Ponfólix* izenez ezagutzen den gaitzak 40 urtetik beherako pertsoneri edo gazteei eragiten die batez ere. Azal azpian baba moduko batzuk agertzen dira, eta hazkurea ematen dute. Eskuko hatzamarretan eta esku eta hanka ahurretan agertzea da ohikoena. Normalean eskuetatik eta hanketatik asko izerditzen duten pertsonen izaten dute. Ez dakigu zergatik agertzen den, baina estres egoeretan eta lehenago alergia izan duten pertsonen kasuetan areagotu egiten da.

Bat-batean agertzen da eta hainbat astez luza daiteke. Batzuetan kronikoa bihurtzen da, azala loditu eta pitzadurak agertzen direlarik. Gerta daiteke hatzazkalei ere eragitea. Tratamendu zaila dauka. Kortikoideak dituen pomadak erabiltzen dira eta oso garrantzitsua da estres egoerak kontrolatzea. Behin agertuz gero, oso erraz agertzen da berriz.

OSASUN KEZKAK:

Kaltegarria da lentilekin hondartzara joatea?

Ikus Optikan esan digutenez, hobe da lentilarik ez ipintzea hondartzara bagoaz eta ahal dela eguzkitako betaurrekoak erabili. Lentilak izorratu egiten dira itsasoko eta igerilekuko urarekin. Lentilekin eguzkia hartzea berez ez da kaltegarria baina kontuan izan behar da lentilak, bai bigunak bai gogorrak, zikatu egin daitezkeela luzaro egonez gero. Lentila motaren arabera ere kalteak ez dira beti berberak izaten. Aholku modura, hobe da betaurrekoekin joatea.

DENTISTAK

Agustin Sanchez

..... A. Arrillaga, 8 • Tel: **943 74 37 47**

..... Astelehena-ostirala:
9:00-13:00 / 16:00-17:00

..... Asteartea, asteazkena, osteguna:
9:00-13:00 / 16:00-19:00

MASAJISTAK

Ezkurra

..... Santa Ana, 14 • Tel: **943 74 08 96**

..... Egunero: 15:00-20:00

Victoria Iraegi

..... P. Migel Urruzuno, 31 • Tel: **74 07 70**

..... Egunero: 10:30-13:00 / 15:00-19:00

OPTIKAK

Ikus (Optiko-optometrista)

..... San Bartolome, 10 • Tel: **943 74 37 34**

..... Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri (optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

..... San Frantzisko, 21 • Tel: **943 74 03 59**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

..... San Bartolome, 9 • Tel: **943 74 35 62**

..... Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Ibiltzen

..... Ubitarte, 11 • Tel: **943 74 36 56**

..... Egunero: 10:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñaki Rivero

..... San Bartolome, 28 • Tel: **943 74 32 90**

..... Ostegunak: 9:00-12:00 / 15:00-19:30

Gida honetan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

Osasunari buruzko kezka bat argitu nahi baduzu, deitu **BARRE**neko 943 74 41 12ra



Fermin Muguruza Gaztetxean

Fermin Muguruza eta *Dut* taldea Gaztetxean izan ziren joan den ostegunean. Gazte Asanbladakoek adierazi bezala, "350 bat sarrera saldu ziren. Kontzertua ondo egon zen eta beti bezala, herriko problematikari erreferentzia egin zion Ferminek". Zapatuan, berriz, *The black heart procession* eta *A Minor Forest* taldeek jo zuten. 50 sarrera inguru bakarrik saldu ziren, "itxura denez jendeak nahiago izan zuen inguruko herrietako jaietara joatea". *A Minor Forest* taldeak oso kontzertu motza eman bazuen ere, bigarren taldea ondo aritu zen eta jendeak 'bis'ak ere eskatu zituen.

● Gazte Asanbladako en protesta Kutxako bulegoan

Asteartean, hilak 23, goizeko 8ak laurden gutxitan, Gazte Asanbladako hiru kide Errosario kaleko Kutxaren kutxazain automatikoaren gelan entzerratu ziren Eibar-Gasteiz autopistaren aurka protestatzeko. Elgoibarko bi kide, J. A. E. eta J. F. M., eta Mendaroko bat, D.F.M., kanpoko atera kateatu ondoren egurrezko ohol batekin kutxazainaren gela eta bulegoko sarrera blokeatu zuten. Hiru kideek prentsaurrekoan adierazi bezala, "sei botila kristaletara pegatu genituen, bi botila kristal bakoitzera, 'azidoa' zutela ohartarazten zuen txartelarekin. Kartel batean kristala ez apurtzeko abisatzen genuen, azidoa gure gainera eroriko baitzen. Baina bagenekien Ertzantzak kristalak apurtuko zituela eta horregatik ura jarri genuen. 8:00ak aldera, Ertzantza iritsi zen eta azidoari kasurik egin gabe kristalak apurtu zituzten". Ertzainek Kutxara iritsi eta kateak eten ostean, atxiloturik eraman zituzten. Hiru kide hauen esanetan, "ertzainek kolpeak eman zizkiguten, J. F. M. hanka batean zauritu zuten eta behin eta berriz iraindu gintuzten". Eibarko komisaldegira eraman zituzten, "eta han ere tratu txarrak jasan genituen". Ondoren Eibar-ko epaitegian deklaratu zuten, eta behin-behineko askatasunean irten ziren, kalteak eta desorden publikoa sortzeaz akusatuta. Gazte Asanbladako hiru kideek Kutxaren bulegoan gertatu zena kasete batean grabatu zuten. "Epaitegian salatzeke asmoa dugu eta larunbatean, hilak 27, manifestazioa egongo da 19:30ean Madalan hasita, errepresioa eta autopistaren kontra".

Truk

San Frantzisko, 27
Tel: 943 74 26 21

Truk

Kidea

ASESORIA ETA CONSULTING

- Kontabilitatea - Lana - Fiskala - Aseguruak -
INBERTSIO PROIEKTUAK

Ibaitarte industrialdea, 5 - 169 P.K. - Tel: 943 74 08 91

SAN PEDRO

JATETXEA

Jaiak ondo pasa!

AURREZ ENKARGATUZ
GERO HOBE!

San Pedro Auzoa. Tel.: 943 74 00 10. ELGOIBAR

● 23 bataio izan ziren hilaren 21ean

Joan den domekan, hilak 21, bataioak izan ziren Parrokian. Benantzio Otegi parrokoak esan bezala, domekan 23 haurrek jaso zuten bataioa. “Normalean 7 eta 10 inguru bataiatzen dira baina domekan 23 egon ziren, asko”. Bataioak sei aldiz egiten dira urtean, bi hilabete behin. Hurrengo bataioak irailaren lehen domekan izango dira eta urteko azkenak urriko azken domekan.

● Matrikula zabalik Herri Institutuan

Herri Institutuko zuzendaritzak aditzera eman du DBH eta DBHOrako matrikula epea uztailearen 1etik 10era bitartean izango dela. DBHrako matrikula Arreiturre ikastetxean egin behar da eta DBHokoa Bernardo Ezenarron. Halaber, gogorazi nahi dute goi mailako hezkuntza zikloetako matrikula uztailearen 20tik 23ra bitartean izango dela. Bulegoa goizez egongo da irekita (9:00-13:00).

● Marmitako lehiaketa jubilatuentzat

Datorren uztailearen 22rako bikoteentzako Marmitako Lehiaketa antolatu da Jubilatu Etxean. Lehiaketa arratsaldeko 17:00etan hasiko da. Parte hartu nahi duen guztiak izena eman dezake Jubilatu Etxean goizeko 10:00etatik 12:00etara bitartean.

● Jaietako kartel lehiaketa

San Bartolome jaietako kartel lehiaketarako lanak aurkezteko azken eguna uztailearen 6a izango da. Irabazleak 60.000 pta. jasoko ditu.

Suak Salobente auzoko Artazo baserria suntsitu du

Bertan bizi ziren 7 lagunak kale gorrian geratu dira

“**D**esastria izan da, aldian daukaguna, besterik ez jaku geratu, ezer ez”. Rosa M. Lejardiren hitzak dira, norbere etxea erretzen ikusi dituenaren etsipen hitzak. Zapatuan, hilak 20, arratsaldeko 16:00etan Artazo baserriko ganbarak sua hartu zuen. Rosa Mariren alabak, Ainhoak, gauzak nola gertatu ziren azaldu digu. “Gurasuek eta bi osabek lehengusu-bazkarixa zaken Aubi-xan. Anaixa Aitor, Pedro Mari Egaña ‘Mintxeta’ eta hirurok lasto parduak ganbarara sartzen ari ginan. Amama plantxan ari zan sukaldian. Azken hiru lasto parduak ganbarara sartzia falta zan eta derrepente su garrak ikusi genduzen ganbaran. Sukaldetik amama atera eta bi idixak salbu ipini genduzenerako, etxe osua sutan zauan, 15 minutuan danak hartu zaban su”. Itxura denez, bi egunetan batutako 289 kilo lastok sortutako gasen erreakzioaren batak sortu zuen sua. Egun horretan gainera, bero handia egin zuen eta horrek sua areagotu zuen. Idiak salbatu baziren ere, ahari bat eta 80 bat oilo eta txita bertan kiskali ziren.

Eibarko eta Oñatiko suhiltzaileak hiru ordu laurdenera agertu ziren baina ordurako baserri osoa sutan zegoen. Bi orduko lanaren ostean, sugarrak itzali eta aldameneko zelaira sua ez zabaltzea



lortu zuten. Domekan eta astelehenean berriz joan behar izan zuten baserriko hondakinen arteko sute txikiak itzaltzeko. Rosa Mari eta bere sendia Azpeitiko familiaren etxean daude orain eta Udaletxera eta beste zenbait erakundetara jo dute laguntza bila. “Arropak eta beste gauza batzuk laga dizkigute, segurukuak ere egon dia eta bi urtian etxia jasoko dogun esperantzia dakagu. Dirua batzeko jaialdiren bat ere eitxeko asmua badauala uste dot baina asko kostauko jaku honi buelta ematia”.



Euskal selekzioak mintzagai

Kimetz Elkartek antolatuta, 40 bat lagun elkartu ziren joan den ostegunean Euskal Selektioari buruzko mahainguruan. Iñaki Konde moderatzaile lanetan aritu zen eta J. M. Arakistain futbol entrenatzailea, Iñigo Arriola futbolaria, Patxi Arriola ehiztaria, Pako Iriondo Euskal Mendizale Federa-

zioko lehendakaria eta Esait Euskal Selektioaren Aldeko Iritz Taldeko bi kide hizlari modura. Euskal selekzioak aurrera ateratzeko lehen pausoa emanda dagoela komentatu zuten kirolariek. Zenbati kirolean selektioa eratzea posible zela adierazi zuten, ez horrela futbolean, diru asko mugitzen duen kirola baita.



Egur Arte Tailerraren erakusketa, hilaren 30era arte irekita

Egur Arte tailerrak urtero antolatzen duen erakusketa inauguratu zen astelehenean, hilak 22. Egur Tailerreko ikasleek urte osoan zehar egindako hainbat lan hilaren 30era arte ikus daitezke Kultur Etxeko erakusgelan. 28 lagunek egindako 60 lan dira, oleoak eta esmalteak batik bat. Argazkian, inaugurazio egunean elkartu ziren ikasleak agertzen dira. Egur Arte Tailerrekoek esan digutenez, urtean bost ikastaro antolatzen dituzte: oleoa, akuarela, esmaltea, grabatua eta marrazketa. Era berean, “margotzeko edo marrazteko zaletasuna duten guztiei jakinarazi nahi diegu Egur Arte Tailerreko atea irekita ditzutela”.

Domekako mezatan laguntzen dutenen merienda



Parrokiko katekesiak, domekako 11:30eko mezatan laguntzen duen taldeari merienda eskaini zion joan den zapatuan, urtean zehar egindako lana eskertzeko. Argazkian agertzen diren batzuk organista bezala aritzen dira, beste batzuk irakurtzen, kantatzen beste batzuk eta hainbat neska-mutil monagilo lanetan. Guztira 34 domekatan hartu dute parte. Udaldian ez da 11:30eko mezarik izango baina urrian berriz ekingo zaio ordu horretako mezari. Argazkian ikus daitezkeenez neska-mutil hauek umoretsu ibili ziren.



'Pello Zaharra' ren atxiloteta salatzeako manifestazioa

Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta, 50 bat lagunek hartu zuten parte joan den zapatu arratsaldeko manifestazioan. Jose Luis Ansola 'Pello Zaharra' Carabanchelen gartzelaratuta dagoela salatzeako antolatu zen manifestazioa. Bestalde, joan den ostiralean, hilak 19, Euskal Presoak Euskal Herritarzearen aldeko 'pertsiana jaitsiera' deialdiak, Elgoibarren erantzun “flojo xamarra” izan zuela adierazi digu Senideak-eko kide batek. Arratsalderako 'burrumba nazionala' zegoen deituta, eta “nahiko zarata handia izan zen Elgoibarren”.



Herri Institututuko ohorezko matrikuladunak

97/98 ikasturtean ohorezko matrikula atera duten Herri Institututuko ikasleak dira argazkikoak. Goian, ezkerretik hasita, Josu García, Lur Altzibar, Patricia Rodriguez, Nerea Egaña, Lorena León eta Ruben Tercero. Behean, Amaia Jauregi, Lore Agirreazaldegui, Arianne Peñaranda, Unai Villena eta Jon Garate. Herri Institututuko kide eta arduradun guztiek zorionak luzatu nahi dizkiete ikasle hauei kurtsoa hain ederki amaitu dutelako.

Musu baten bila 'Ilargipean'

Herri Institututuko Antzerki Tailerreko ikasleek joan den astelehenean estrainezko aurkeztu zuten Elgoibarren 'Musu baten bila' antzezlan. Xabi Ansola irakaslearen ardurapean, bi emanaldi eskaini zituzten Herriko Antzokian, arratsaldeko 15:00etan ikasleentzat eta 20:00etan herritarrentzat. 'Ilargipean' izena du taldeak eta DBHko 19 ikasle osatzen dute. “Lehen emanaldian oso nerbiozko geunden eta hiru ordu laurden iraun behar zituen emanaldia ordu erdian egin genuen”. Amaieran txalo ugari jaso zituzten, ikusleak gustura geratu ziren seinale. Argazkian, antzerki tailerreko kideak.



Sigmari buruzko batzordea osatzeko mozioa ez zen onartu plenoan

35 orduko lanastearen inguruan ere mintzatu ziren alderdi politikoak

Ekainaren 18an udalbatza izan zen Udaletxean. Beste gai batzuen artean alkatezaren dekretua onartu zen. Dirudienez, Santa Klarako obrak egitean Irati enpresak Telefónicako zenbait kable apurtu omen zituen. Aipaturiko enpresa Udalak subkontratatu zuenez, alkateak epaitegira joan beharko du gai honetan erantzukizunik ez duela defendatzeko.



Sigmaren gaia desblokeatzea beharrezkoa ikusten dute zenbait alderdik herritarren etorkizunerako.

Udalbatzean eztabaida-tu ziren gai nagusienetakoa HBk eta EB-IUk aurkeztu zuten mozioa izan zen. Bertan, alderdi politiko hauek Sigmaren gaia aztertu, bultzatu eta desblokeatzeko batzorde berezi bat sor-tzea proposatu zuten. HBk adierazi zuenez, “Sigma kokatzen zen lurra lur industrial izendatzeak izugarriko garrantzia du elgoibartarren etorkizunerako eta hori lortzea alderdi guztien ardurara da, eta ez alkatearena bakarrik”. Juan Ignacio Ausin, EB-IUko zinegotziak gaineratu zuenez, “egoera hau ez litzateke emango baldin eta alderdion artean behar bezalako komunikazioa balego. Baina, zoritxarrez guk geuk ere informazioa prentsaren bidez

jasotzen dugu, eta hori ezinezkoa da”.

Gillermo Garate alkateak hartu zuen hitza jarraian, “behin eta berriz esan dugu lur industrial delata eta Sigmaren egoera desblokeatzeko lanetan ari garela baina kontua ez da presioa egitea, informazio bideak zabaltzea baizik. Ez dut batzorde bat sortzeko beharra ikusten”. Mozioa atzera bota zen EAJ-PNV eta PSEren botuekin.

35 orduko lanastea

35 orduko lanastea izan zen bigarren gai inportantea. HBk hartu zuen hitza lehenbizi, “35 orduko lanastea Euskal Herriko gehiengo sindikalak eskatzen du eta argi dago bizi dugun ego-

eran, industrigizonak aberas-ten diren bitartean, langileen-tzat gauzak gero eta okerrago-ak direla”. EAK azaldu zuenez, “guk mozioa aurkeztea-ren alde sinatu genuen baina abstenitu egingo gara gure us-tez 35 orduko lanastea eta oi-narrizko soldata progresiboki ezarri behar direlako”. EB-IU-ko zinegotziaren ustez, “bat-zuk eta besteak gauzak na-hastu nahian zabilzate baina kontua ongi garbi dago: alde gaude edo kontra”. PP aurka azaldu zen, “lanpostuak sor-tzeko modu bakarra ekonomiaren haz-kundea dela uste dugu. Lanastea gutxit-zea enpresari- irabazien kontra doa, langileen soldaten kontra eta beti krisi garaian planteiatzen den irtenbidea da. Gure ustez, gai hau sindikatuek eta en-presari-ek hitz egin eta konpondu behar dute”. EAJ-PNVk berriz, mozio al-tena-tiboa aurkeztu zuen, “parlamentuan oi-narrizko soldata eztabadaitzen ari dira eta horien esku lagatzen dugu erabakia. 35 orduko lanastea, berriz, argi dago Europa mailan landu beharko litzateke-ela kompetitibo izaten jarraitu nahi ba-dugu”. Azkenik, PNV-ren mozio al-ternatiboa onartu zen alderdi honen, PPren eta PSEren botuei esker.

HBk Sigmaren gaiari konponbiderik topatu nahi ez izatea leporatu dio PNVri

HBko Pello Mendizabalek hilaren 23an emandako prentsaurrekoan hainbat azalpen eman zituen Sigma dela-eta. “Kontu hau desblokeatu egin behar dela ikusten dugu”. HBk IUREkin batera, Sigmari buruzko batzordea eratze-ko mozioa aurkeztu zuen hilaren 18ko plenoan. “Hasieran EAKo zinegotziak ere mozioa-ren aldekoak ziren baina azkenean boze-ramaleen juntan gaia aztertzea aproposa-go delata erabaki zuten”. HBko Marcos zi-negotziak duela bi hilabete alkateari boze-ramaleen juntan gaia aztertze-ko proposatu

ziola azaldu zuten. “Alkateak ez zuen kontrako jarrerarik azaldu baina denbora pasatu da eta ez da junta konbokatu. Hor-taz, IUk eta HBk mozioa aurkeztu genuen plenoan”. PNVk eta PSEk kontra bozkatu zuten eta PP eta EA abstenitu egin ziren. “Alkateak eta PNVk bidea itxi nahi dute, ez dakigu zein interes daukan Garatek Sigma lur industrial ez izateko baina in-teres pribatuak alde batera laga behar di-ra”. HBren ustez, logikoa da Sigma lur industrialerako erabiltzea, “lur industrial izendapena baitu”. Mendizabalek gogora

ekarri zuen ibaiaren mozketaren proiektua. “PNVk lur industrial sortzeko proiektu erraldoi hau egin nahi zuen Di-putazioak atzera bota zuen arte. Albitxuri ere industria gune bihurtu nahi dute, nahiz eta zona berdea izan. Eta ezin dugu ahaz-tu Udalak Unialcori baietza ematen badio, herriko dendentzako kaltegarria izateaz gain, lur industrial ere hipotekatuko dela, nahiz eta lur eremu txikia izan”. PNVk batzordearen sorrera geratu izana salatu zuten eta prest zeudela esan zuten plenoan abstenitu ziren alderdiekin lan egiteko.

kili **BARREN**

Ekainaren 26a
48. zkia

M E N D A R O K O G E H I G A R R I A



H

ilabete honetako argazkia **Nati Zulaikak** lagatakoa da eta Azpilgoeta auzoko elizpean aterata dago 1932. urtean. Erretratuaz azaltzen direnak Azpilgoeta auzoan ibiltzen ziren lagun eta ikasle talde bat da. Hona hemen agertzen direnen izen-abizenak, behetik eta ezkerretik hasita: **Felix Garate, Pakita Bravo, Augusto Artamendi, Fernando Artamendi, Juanito Garate eta Manuela Txurruka.** 2. ilaran: **Elias Bravo, Tiburcio Recadi, Isidro Arriola (†), Mariano Gurrutxaga, Isidro Gurrutxaga (†), Valentin Larrañaga, Jose M. Txurruka, Nikolas Zulaika, Jose Gurrutxaga (†) eta Maxima**

Arriola. 3. ilaran: **M. Teresa Aizpiri, Maritxu Larrañaga, Anita Larrañaga (†), M. Teresa Juaristi (†), Begoña Juaristi, Arantxa Iriondo, Luis, Luisito Unzueta, Angel Urbie-ta (†) eta Jose M. Aranburu.** 4. ilaran: **Paula Salegi, Luisa Arriola, Karmen Izeta, Pakita Arriola, Bernardina Arratibel, Mertxe Zuloaga, Nati Zulaika, Eugenia Garate, Teresa Arriola eta Juanita Arriola.** 5. ilaran: **Josefa Olazabal (†), Josefa Juaristi (†), Txomin Eizagirre (†), Inazio Olazabal, Eugenio Osoro, Paco Unzueta, Alejandro Ruiz (irakaslea) eta Paco Recadi.**



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean **BARREN astekarirako**

MAKETATZAILE bat behar da

**ESKATZEN DA: MACINTOSHerako
QuarkXPress eta Photoshop**

**Urtebeterako lan kontratua,
berritzeko aukerarekin.**

Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Imanol)

Interesatuok bidali kurrikulum-ak **uztailaren 1**a baino lehen:
Elgoibarko Izarra K. E. - Ubitarte 4, behea - 20870 ELGOIBAR

Mendaroko martxak badauka letra

Mendaroko martxa Juan Colmenerok konposatu zuen 1992an. Hala ere, orain gutxi, Udalak martxari hitza jartzea erabaki du. Horrela bada, martxa himno bihurtu eta hitza sartuz, epe laburrera, Mendaroko eliz abesbatzak eta Debako Bandak aipaturiko himnoarekin grabatu duten diska kalera-tuko da.

Juan Antonio Colmenero Otegi 1915eko martxoaren 16an jaio zen Tolosan. Gazte-gaztetatik izan zuen musikarekiko zaletasuna, 9 urterekin hasi zelarik tronpeta jotzen. Juanito Colmenerok hainbat lan konposatu zituen, besteak beste, Tolosako tanborradarako piezak. Colmenerok bultzatuta hasi ziren, neurri batean, gaur egun hain famatuak diren Tolosako ihauteriak.

1992an Mendaroko martxa prest


Hutsaren truke, beti zegoen prest erakunde edo pertsona partikularrek eskatutako lanak egiteko. 1992 urtean, Pedro Zubia lagunaren eskariz, *Aupa Mendaro* martxa konposatu zuen. Izan ere, Zubia urtero izaten zen Mendaroko jaietan eta tanborrada ikustean beti faltan botatzen zuen Mendarok martxa propioa izatea. Ho-

rreratik egin zion eskaera Colmenerori. Honek, hutsaren truke egin zuen eskatutakoa eta 1992an estreinatu zen martxa. Zoritxarrez, Colmenero urtebete beranduago hil zen 77 urte zituela.

Martxa himno bihurtu eta hitza jarri

Urte batzuk pasatu direnean, Udalak Mendaroko martxa himno bihurtu eta hitza jartzea pentsatu eta bi profesionalengana jo zuen, Juan Carlos Irizar (musika) eta M. Itziar Aizpuruarengana (hitzak), hain zuzen. Itziarrek Mendaro ez duenez ezagutzen, Udaletxetik eta historia-ko liburutetik jaso du informazioa letra idazteko. Juan Carlos Irizarrek, berriz, Colmeneroren martxa moldatu du orkestra osoak jotzeko moduan eta letraren erritmorra egokitu du.

Juan Carlos Irizar zestoarrak Europako irakasle onenekin ikasi zuen musika eta hainbat orkestra eta banden zuzendaria izan da, besteak beste, "Orquesta de la Academia Santa Cecilia de Roma", "Orquesta Sinfonica del Liceo de Barcelona" eta abar, eta Bruselas eta Alemanian eman izan ditu kontzertuak.



Konpaktoa

Tanbor hotsek, Debako Bandak eta Mendaroko eliz abesbatzak emango diote soinua Mendaroko himnoari. Horretarako hasi dira grabatzen konpaktoa, Mendaroko martxaz gain beste 14 abesti ere sartuko dituztelarik. Konpaktoak berehala kaleratuko dira eta Santixo egunean estreinatuko da himnoa, tanborradaren ostean, Mendaroko Herriko Plazan.

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

*Hip-oberaztu udakia gida
baimena ateratzeko*

*bera ematerakoa %10eko
beherapena gaste
tartelarekin*

AUPA MENDARO

Aupa mendarotar guztion nortasuna altza gure bihotzetako su gartsua.

Herritarren goxotasun ta apaltasuna, aski edonon ezagunak. Gurutzearen babes ona betidanik, zuzentasunaren bideak irakatsiz. Herritarren adeitasun ta apaltasuna, haran osoan ezagunak.

Alaitasunaren bide jatorrak jorratuaz gu, ahots goxoekin, elkartasunean, euskaldun izatearen harrotasunez beteak tinkotasunez eutsiaz gure ohitura zaharrei (Bis) MENDARO, BAI.

Kilimon ibai gardena, herritik zehar joanez, bailara baketsu honetan gu batzen gaituelarik, zelai, mendi eta baso, hainbat mende ikusirik, mendarotarren lekuko dira, herri nortasunarekin batera, anaitasunean, haziak izanik, arbasoen tradizioaz. Kilimon ibai gardena, herritik iraganaz, bailara baketsu honetan, gu batzen gaituelarik,

Ezagutzen al duzu

Mendaroko martxari jarritako letra?



Agustin Mari Berasaluce

Bai, nahiz eta beharrezkoa izan ez, inizatiba polita da. Grabaketa Gargartzan egingo da uztailaren 4an.

Jesús Iturza



Gustatzen jata, abesteko erreza da eta herritarrek azkar ikasiko dutela uste dut. Diskoa grabatzea esperientzia polita izan da.



Ane Ullas

Enakixan letria jarri ziuetik. Poztutzen naiz. Badakat asmua ikasteko.

Jose Maria Garcia



Ez, baina idea ona da ze Mendarori nortasuna ematen dio.



Jose Antonio Iriondo

Ez det ezagutzen. Odo dao letria ipintzia. Ikasiko dotela uste dot, polita da jakitzia.

Aitor Basurto



Ez dot euki aukeria ezagutzeko baina ondo dao letria jartzia. Ez dakat ikasteko asmorik baina asko entzuten bada seguruenen buruan sartuko jatala.

BOUTIQUE DEL
Enpanadak Enbutidoak
Baserriko ogia Bolleria
 San Bartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 ☎ 943 74 33 92

INTURAK
 PEDRO PEREZ BERISTAIN
 San Roke, 30 behe. ☎ 943 74 36 52 - 74 27
 KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

❖ Pilota txapelketa

Joan den larunbatean afizionatuen arteko pilota txapelketa hasi zen Goñati pilotalekuan. Hasteko, Mendaroko alebiren arteko partidua jokatu zen: Agirrebeña 18 eta Larrañaga 6. Txapelketaren ondorengo partiduen emaitza, berriz, ondokoa izan zen: Egimendia 22-Aldazabal 12 eta Sebas 22-Antxia II 8.

Gaur, ekainak 26, ostirala, gaueko 21:30ean hasita, Aurtenetxe (Bizkaia)-Mikel (Araba) eta Muniozguren-Abad (Araba) partidua jokatu dira. Bihar ere izango da partidurik. Txapelketa larunbat eta igandeetan jokatu da, finala Santixo egunean izango delarik.

❖ Gaueko dantzaldiak

Udako gauean jendea etxetik ateratzeko animatu nahian, Udalak dantzaldiak antolatu ditu herriko plaza txikietan. Aurreko larunbatean, esaterako, Jose M. Esteibar soinu-joleak Garagartzako plazeleta alaitu zuen giro polita sortuz. Bihar, ekainak 27, Zabale aniekin dantzatzeko aukera izango da Zelaikua plazan gaueko 23:00etatik aurrera. Datorren uztailearen 4an, berriz, Mendarozabal plazan izango da dantzaldia.

❖ Makailo lehiaketa

Santixo egunean Makailo lehiaketa ospatu da, urtero bezala. Makailoa pil-pil erara prestatu beharko da eta Mendaroko elkarte eta kuadrilek har dezakete parte, talde bakoitza bi lagunek osatuko dutelarik. Izen-ematea uztailearen 15a baino lehen egin beharko da Aizpe, Kilimon Zahar, Bustin-Alde, Txirristaka, Ormola eta Udaletxean.

❖ Afari herrikoa

Jaietako batzordeak ohiko afari herrikoa antolatzen dihardu. Afaria uztailearen 24an, Santixo bezperan, izango da gaueko 21:30ean, Herriko Enparantzan.

Menua, marmitakoa, erredondoa saltan, San Markos tarta, edaria, kafe konpletoa eta txanpaina izango da, guztia 1.600 pta.rengatik. Afari txartelak uztailearen 20a baino lehen erosi behar dira Aizpe, Kilimon Zahar, Bustin-Alde, Ormola, Txirristaka edo Udaletxean.

Tanborradako entsaioak

Dagoeneko hasiera doaz Tanborradako entsaioak. Antolatzaileek esan dutenez, iaz tanborradan jo zuten guztiei dei egiten zaie San Jose ikastolan gaueko 21:30ean hasita izango

diren entsaioetara joan daitezten. Ekainaren 25ean tanborrak elkartu ziren. Uztailearen 2an barriken entsaia izango da eta uztailearen 9, 16 eta 22an guztiek batera entsaiatuko dute.



Gazteen eguneko bazkaria

Uztailearen 18an, larunbata, eguerdiko 14:30ean hasita bazkaria egongo da Herriko Enparantzan. Nahitaezkoa izango da izena eman eta txartela aurkeztea. Menua, entsalada mistoa, oilaskoa patatekin, fruta eta edariak izango da eta prezioa 900 pta. Bazka-

ria, izena emateko orduan ordaindu beharko da eta txartela esku-ratzeko Ormola, Txirristaka, Leku Ona eta Udaletxera jo daiteke. Epea uztailearen 3an amaituko da. Berez, bazkarien kostua 1.800 pta.koa da baina prezioaren erdia Jai Batzordeak ordainduko du.



Santi Urain Odriozolak 27 urte ditu eta Orlandon bizi da, Floridan. Bere aitak, Imanol Urain, ek zesta puntan jokatu zuen eta Santik bide bera jarraitu du. Tijuana, Mexikon, eskaini zioten kontratua 19 urte zituela. Han zegoela Leticia mexikarra ezagutu eta ezkondu egin ziren. Azaroan jaioko da bikotearen lehenengo haurra. Hilabeteko oporrak ditu eta hori aprobetxatuz, urtero bezala, Elgoibarrera etorri da.

“Tijuana pilotarien tranpolina da”

– Txikitatik ikusi dituzu etxeko hormetan zestak zintzilikatuak.

- Bai, hala da. Dena dela, sekula ez zidaten atentzioa deitu Juliantxo Gueñetxea eta Roberto Azpillagaren bidez lehen aldiz zesta puntarekin kontaktua izan arte. Hauekin sortu zitzaidan zesta ikasteko gogo eta 15 urte nituela entrenatzen hasi nintzen.

– Zesta puntako jokalariren ilusioa kanpora joatea al da?

- Bai, dudarik gabe. Hasi nintzenean nire ilusioa kanpora joate zen. Gogoan nituen aitak kontatzen zizkidan abenturak. Bera ere zesta puntista izan zen eta hark esaten zuenez, Ameriketara bizi izandako garaia izan zen onena.

– 19 urterekin iritsi zitzazun aukera.

- Bai. Gurutze Gorrian egin nuen zerbitzu militarra eta institutuan ez neukan batere garbi zein ikasketa

egin nahi nuen. Niri pilota gustatzen zitzaidan. Horrela bada, 19 urterekin Tijuana, Mexikon jokatzeko kontratua eskaini zidaten eta zailtzarrik gabe onartu nuen. Tijuana pilotarien tranpolina da.

– Gaur egun Orlandon bizi zara. Nolako da zure bizitza?

- Egun batzuetan goizez eta gauzez izaten ditut partiduetak. Beraz, esnatu, kiniela jokatu, bazkaldu, siesta egin eta berriz ere frontoira. Gauzez batzuetan kalera ateratzen gara zerbait hartzera. Astean bi egun jai dauzkagu eta horietan hondartzara edo joaten gara.

– Ikusle goia al da amerikarra?

- Askok jaitzi da. Nire aita egon zen garaian frontoi asko ireki ziren, gaur egun, aldiz, itxi eta dendak ari dira zabaltzen. Hala ere, Florida Benidorm-en antzekoa da. Jendea jubilatzen denean Floridara joaten da eta

horiek izaten dira ikusle finenak. Horregatik izaten ditugu partiduetak goizez eta gauzez.

– Kinielak aipatu dituzu. Azaldu zer den hori.

- Kiniela bakoitza 7 puntura izaten da eta 8 pelotari edo bikote aritzen gara. Ilaran jarri eta puntua galtzen duena kanpora ateratzen da, haren tokian hurrengoa sartuz. Horrela, pilotariren bat zazpita iritsi arte. Saio bakoitzean bost edo sei kiniela jokatzen ditugu.

– Ba al duzu izen profesionalik?

- Bai, Odriozola, amaren abizena. Ama 1986an hil zen eta haren omenez aukeratu nuen izena.

– Telebistan ikusten den bezala bizi al da Floridan?

- Ni gustura bizi naiz. Oso klima ona dago, hondartzak dituzu, Disneylandia eta abar ere han daude... Hala ere, pilotari gehienok batera ibiltzen gara eta gehienok euskaldunak garenenez gerta daiteke ingelesik apenas ez ikastea.

– Ba al duzue hemengo berri?

- Beti iristen dira gauzak. Domekero ibiltzen gara futbolarekin bueltaka. Gainera, batek satellite bidez hemengo telebista hartzen du eta badago etxean Internet bidez informazio mordo bat jasotzen duenik ere.

– Etorkizunerako, zer asmo?

- Etorkizuna ezin da aurrikusi. Printzipioz jokatzen jarraitzeko asmoa dut. Egun batean amaitzen bazait, seguruena bueltatu egingo naiz. Ez dut ikusten nire burua Ameriketara pilotan egin gabe. Familia hemen daukat eta emazteari ere asko gustatzen zaio hau, beraz...

HAIR
URAIN
SANTI
URAIN



BESTE EK ESANA

“Frontoian eta kalean lagun ezin hobea da..”
ROBERTO AZPILLAGA, laguna eta puntista ohia



DISNEYLAND 3 gau
(4 egunetarako sarrera doan)
(Hendaiaetik trenez) **45.950** pta.tik
(Miarrizetik hegazkinez) **56.700** pta.tik

PARIS 3 gau
(Hendaiaetik trenez) **30.350** pta.tik
(Miarrizetik hegazkinez) **50.300** pta.tik

MARRAKECH 8 gau
(Madriletik) **37.500** pta.tik

KRUZEROA MEDITERRANEOAN
(Bartzelonatik) **92.900** pta.tik

ESKAINITZA BEREZIA!!

CUBA 14 gau (Madriletik)
Ekainak 30 eta uztailak 4 eta 7
Goi Mailako
Turista Hotela **99.000** pta.

CANCUN 14 gau (Madriletik)
Uztailak 6 eta 12
Turista Hotela **145.000** pta.

TUNEZ 7 gau (Madriletik)
Uztailak 6 eta 13
Port el Kantaoui herrian
P. E., 3 *-eko hotela **49.900** pta.

GREZIA
Uztailak 3 eta 10
Atenas 3 gau + Kruzeroa 4 gau
Madriletik +
enbarke tasak **129.300** pta.

ZIRKUITOAK AUTOBUSEZ

GALIZIA - Rias Baixas
7 egun P.O. **17.500** pta.tik

BENIDORM
8 egun P.O. **29.900** pta.tik

COSTA BRAVA
8 egun P.O. **37.500** pta.tik

ANDALUZIA
7 egun P.E. **40.900** pta.tik

SALOU - Port Aventura
8 egun P.O. **41.500** pta.tik

ITALIA
10 egun P.O. **79.500** pta.tik

ETA GAINERA...

Bidaiak irletara:

Balear irlak, Kanariar irlak, Madeira etab.

Egonaldiak:

Costa Brava, Dorada, Blanca, Azahar, Del Sol, De la Luz, Cantabria, Asturias, Galicia etab.

Hotel Color, Bancotel, Ibercheque, Keytel Pass eta beste hainbat taloitegirekin bidaiatzeko erarik merkeena.

Zatoz eta kontsultatu!



Foruen plaza, 3
Tel: 943 74 39 12

Maria Agirre Garate
(1895-1972)



- 1895eko irailaren 17an jaio zen, San Pedro bailarako Akei baserrian. 8 anai-arrebetatik gazteena zen.
- Dexente moldatuaz ikasi zuen eskola San Pedron eta kalean. Bere gazte denbora beti etxean pasatzen zuen, lana eginaz sukaldean, baratzean... Soroan neke handiak pasatu zituen aldapa haundiko lekua zelako. Kalera ere askotan etorri zen azokara salmentara, esnea partitzera etxez etxe... Goizean goiz jaiki, as-toa kargatu eta alai betetzen zituen gai honetako konpromezuak. Mokadu bat egin, etxerako gauzak erosi eta bailarako jendearekin kontuak esanaz etxera bueltatzen zen berriz.
- Loreak hazi eta arropa jostea gustatzen zitzaion. Amabirjinaren kongregaziokoa zen eta goizetako meza asko entzundakoa kalean. Lagun artean erromerietara joatea ere gustatzen zitzaion.
- 1922ko otsailean ezkondu zen Iñazio Gorritirekin, Urruzuno bailarako Urruzuno-Berri baserrikoa. 8 seme-alaba izan zituzten. Bere jaiotetxean bezala, hemen ere lan asko egitea tokatu zitzaion famili ugaria hazteko. Saiatuz pazientziarekin, lan arlo guztietan langile amorratua izanik, lortu zuen denak aurrera ateratzea.
- Sinesmen handikoa zen eta hainbat bidaia egin zituen San Antonio, Santa Eufemia, Arrate eta abarrera bere umeekin batera. Herriko parrokan meza asko entzundakoa.
- Mariak zeukan guztia ematen zuen, sinpatika zen, borondatezkoa, hizlaria, familia girokoa eta oso ezaguna herrian.
- Zaletasunen artean gogoko zituen Euskal Herriko bertso, kanta eta abarrak.
- 1972ko otsailaren 29an hil zen, 77 urte zituela.

Juanito Gorostiza



Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ 943 20 35 15
☎ ABERIAK 943 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa)
● 20600 EIBAR



HERRI-GAIN ERRETEGIA

San Pedro auzoa 4

☎ 943 74 30 40 ELGOIBAR

Ba al dute etorkizunik euskal selekzioek?



M. ANGELES MUGERZA
48 urte, dendaria

Pentsatzen det baietz. Maila nahikua egongo da, ez? Ni ez naiz deporte zalia baina euskal selekziuak egongo balia beti gertuotik sentitzen dozu taldia.



CARMELO MODAMIO
63 urte, Merkatu Plazako arduraduna

Futbolean maila ona dauka-gu; saiakera egin beharko genuke. Gure jendea bultzatuko genuke horrela, hainbeste atzerritar fitxatu gabe.



MAIDER ARANBURU
21 urte, ikaslea

Uste dot baietz. Ez da erraza izango baina hemen kirolari onak daude eta ideia ona da. Espainiako selekziuan euskaldun asko dao eta ez genduke papel txarra ingo.



JESUS MARI ASTIGARRAGA

46 urte, bulegoko teknikoa
Idea oso ondo dao baina uste dot lana in biharko zala, ze gauzak oin dauden bezela nahiko zaila izango litzake. Ez dakit mailarik dauan.



BORJA UZURIAGA
14 urte, ikaslea

Bai, batez ere eskubaloi-kuak eta txirrindularitza-kuak uste dot maila ona daketela eta ondo egongo litzake euskal selekziuak eitia.



NEREA MERINO
18 urte, ikaslea

Argi dago selekzioa Espainia osokoa bada, maila hobea izango duela baina hemen kirolari onak daude eta ongi legoke euskal selekzioa egotea, gertuago izango genuke.



ESKERTZA

1998ko ekainaren 20an, 55 urte zituela hil zen
JESUS MARI ORTUETAren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak, hala nola
hileta elizkizunetara agertu izana.



III. URTEURRENA
1995ko ekainaren 25ean, 81 eta 53 urte zituztela hil ziren **MARIA AROCENA UNZUETA** eta **ROSA RIAÑO AROCENA**ren omenez **URTEMEZA** izango da San Bartolome Parrokian larunbatean, hilak 27, arratsaldeko 19:00etan.



● **II. Udako Kirol Eskola uztailaren 7tik 10era bitartean izango da**

Deba bailarako Kirol eta Euskara Zerbitzuek, iazko proiektuari eutsiz, II. Udako Kirol Eskola egitasmoa antolatu dute uztailaren 7tik 10era bitartean. Kirol arloan lan egiten duten entrenatzaile, monitore eta irakasleei zuzendua dago eta helburua, kirolari gazteei punta-puntako entrenatzaile eta kirolari euskaldunekin ikasteko aukera ematea da. Aurten aerobika, kirol egokitua eta kirol alternatiboei buruzko ikastaroak, eta kirolarientzako rugby, pilota eta tenis ikastaroak emango dira. Honez gain, hainbat gairi buruzko hitzaldiak ere egongo dira. Ikastaroak eta hitzaldiak Oñatin eta Eibarren izango dira. Informazio gehiago eskuratzeko 943 74 44 15 zenbakira deitu.

● **Defentsa pertsonala lantzeko ikastaroa**

Olaizaga Kirol Taldeak defentsa pertsonalari buruzko ikastaroa emango du uztailaren 1etik 27ra bitartean. Klase teorikoak (ikuspegi juridiko eta psikologikoak) eta praktikoak emango dira astelehen eta asteazkenean arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara bitartean. Ikastaro amaieran Karate Federazioaren ziurtagiria emango da. Prezioa 5.000 pta.koa da bazkideentzat eta 6.000 pta. bazkide ez direnentzat. Izena emateko 943 74 44 15era deitu.

Xabier Oliveirak irabazi zuen Nahaste-Borraste lasterketa

Nagusietan 19 lasterkari izan ziren eta gazteetan 6 baino ez

Kimetz Elkarteak antolatzen duen Nahaste-Borraste lasterketan partehartzaile kopurua iazkoa baino eskasagoa izan da aurten. Nagusien mailan 19 lasterkerik hartu zuten parte eta 14 urtetik beherakoetan, 6 neska-mutilek baino ez. Kategoria honetan Iker Gonzalezek irabazi zuen eta lehen neska Alaitz Merino izan zen. Nagusien lasterketa 12:30ak aldera hasi zen Plaza Handian. Bizikleta lasterketan Xabier Oliveira eta Jon Asensio aurretik jarri ziren. Zakuarekin paretsu ibili ziren baina azkenik, saltaka, Xabier Oliveirak aurea hartu zion eta lehenengo postuan iritsi zen Plaza Handiko helmugara. Ignacio Perez-ek Asensio gainditu eta bigarren lekuan sailkatu zen. Asensio, berriz, hirugarrena izan zen. Nagusien proban bi emakumek hartu zuten parte: Isabel Ruiz, irabazlea kategoria honetan, eta Gotzone Aierdi, bigarren geratu zena. Urtero bezala, azken sailkatuarentzako saria, 'Farolillo' Gorria hain zuzen, Dakintak eskuratu zuen.



Iñigo Lariz, Euskadiko Txirrindulari Txapelketan

Iñigo Lariz laugarrena izan zen lehen urteko kadeteen Euskadiko Txapelketan. Araban izan zen lasterketaren 37. km.an, Iñigok ihes egin zuen baina helmugarako 5 km.ren faltan atzekoek bat egin eta azkenean, laugarren geratu zen.

Sailkapena

14 URTETIK BEHERAKOAK:

- 1- Iker Martinez. 10'34"
- 2- Ivan Gonzalez 11'47"
- 3- Jon Agirregomezkorta. . . 11'54"
- 4- Mikel Gorriti 13'04"
- 5- Alaitz Merino 13'26"
- 6- Leire Apellaniz 16'00"

NAGUSIAK:

- 1- Xabier Oliveira. 23'00"
- 2- Ignacio Perez 23'29"
- 3- Jon Asensio 23'54"
- 4- Iñaki Ulazia 24'00"

BETERANOAK A:

- 1- Ignacio Perez 23'29"

BETERANOAK B:

- 1- Antonio Fernandez . . . 28'58"

EMAKUMEAK:

- 1- Isabel Ruiz 29'50"
- 2- Gotzon Aierdi. 32'25"

'FAROLILLO' GORRIA:

- Dakinta 36'40"



Karate erakustaldia Kiroldegian

Olaizaga Kirol Elkarteko karate ikasleek, Luis Agirregomezkortaren ardurapean, karateko erakustaldia eskaini zuten hilaren 13an. Ordubetez luzatu zen saioan, 35 ikaslek, beroketa ariketak egin ostean, oinarriko teknikak eta teknika konbinatuak egin zituzten. Besteak beste, makila laburra, ertaina eta luzea nola erabiltzen diren erakutsi zuten. Amaitezko, 'kata'k zer diren azaldu zituzten, hau da, kide askoren aurka erabil daitezkeen teknikak.

35 pilotarik hartu dute parte 'Lagunak' Pilota Txapelketan

Joan den zapatu eguerdian jokatu ziren finalak Plaza Handian

Lagunak Pilota Eskolak antolatutako herri mailako pilota txapelketaren finalak joan den zapatu eguerdian jokatu ziren Plaza Handian. Lehenengo hiru partiduak gogorrek eta nahiko parrekatuak izan ziren, azken partidua izan ezik. Ikuslegoak tanto polit ugari ikusteko aukera izan zuen. Aurten zazpigarren edizioa izan da eta guztira 35 pilotari aritu dira. Duela pare bat hilabete hasi zen jokatzeko 'Lagunak' Txapelketa eta partiduak Ikastolako frontoian eta Plaza Handian jokatu dira, asteazken eta ostiral arratsaldeetan. Zapatuko finaletan emaitzak ondorengoak izan ziren:



BENJAMIN AURREKOAK:

Javier Salazar **18** - Ibai Oiarzabal **15**

BENJAMINAK:

Iker Txurruka **18** - Asier Larrea **12**

ALEBINAK:

Haritz Iriondo **15** - Eneko Ulazia **18**

KADETEAK:

Egoitz Alkorta **18** - Joseba Arrillaga **6**

300 ikusle eta 115 gimnasta bildu ziren gimnasia erritmikoko erakustaldian

Tania Lamarca opari ugari jaso zituen omenaldi ekitaldian

Ibai Kirol Elkarteko Manu Morak adierazi bezala, "nahiz eta bero ikaragarria pasatu genuen, oso pozik gaude joan den zapatuan Ibaiko gimnastek eta Donostia, Ermua, Eibar, Bergara eta Sorluzeko neskatoek erakutsi zuten ikuskizunarekin". Tania Lamarca txapelkun olinpikoa ere oso gustura geratu omen zen omenaldiarekin. Egin dioten "omenaldirik beroena" izan zela aitortu zuen bizpahiru aldiz Espainiako eta Munduko txapelketa izan den 17 urteko gasteiztarrrak. Kiroldegian bildu ziren 300 ikusleen txaloak, Haritz Dantzari Taldearen aurrekua eta Ibai Elkartearen, Udalaren eta sei herrietako gimnasia irakasleen izenean opari mordo bat jaso zituen Taniak. Honen gurasoentzat ere egon zen oparirik.

Omenaldi ekitaldiaren ostean, lehenago aipatutako sei herrietako 115 gimnasten erakustaldiari hasiera eman zitzaion. Bi orduz luzatu zen saioan Ibai Kirol Elkarteko 14

neskatoek aparatoekin eta esku libreekin ederki moldatzen direla erakutsi zuten, taldeka zein banaka. Saioan bizikleta bat zozketatu zen eta sariduna eibartar bat izan zen. Ibai Kirol Elkartek honako etxe hauek emandako laguntza eskertu nahi du: Euskadiko Kutxa, Astigarraga Kirolak, Haritz Dantzari Taldea, Eroski, Halcon Bidaia, Orbea bizikletak, Udal Kirol Patronatua eta Apraiz lurrindegia.



Ezkerretik hasita, Manu Mora Ibai Elkarteko burua, Tania Lamarca eta J. M. Oruesgasti.

EMAITZAK

Futbol 7 Txapelketa

Inkision **13** - Invecibles.Txer **3**
 PAC **21** - Txiri Strike **0**
 Lojantzi **8** - Pimpaos Hilbera **1**
 SAS **0** - AIK **5**
 Kama Sutra **5** - Materias Peligrosas **3**
 Olaso F. C. **1** - Kadar **10**
 Bar Gure Toki **2** - Bar Amistad **4**
 Bar Malape **9** - Zordunak **3**
 Amañako Zein Taldea **0** - Bar Arkupe **5**
 Ford Lerun **1** - Zergatik Ez **4**
 Rayas Amsterdam **4** - Murruka **7**
 Eide Globun **0** - Font. Astigarraga **10**
 Azkenengoak **16** - Liverpool-pol **1**
 Los Blancanitos **0** - Spartak Pitxote **9**
 Ke+Da **6** - PSK **4**
 Litoplasma F.C. **6** - Pottokoak II **6**
 WWWinter-Medio.com **5** - Elec. Egaña **0**
 Spartak Vladikaskav **2** - 1664 G. B. **8**
 Aizkolariak **8** - Delabuena '2' **1**
 R. Oso Takata B. **2** - Ful Monti **0**
 Guridi Taberna **2** - Malas Hierbas **6**
 Violet Kickers **8** - Ez Dok **6**
 Alki '07' **4** - Larrutxupi **0**
 Vultur Gryphus **9** - Vander Vela y Cia **3**
 Majestades Satanicas **5** - ZRU **3**
 Bar Xare **2** - Sin Perdon **0**

AGENDA

Futbol 7 Txapelketa, Mintxetan

Larunbata, 27

9:00 Ke+Da - Pottokoak II
 PSK - Litoplasma
10:00 Azkenengoak - Spartak Pitxote
 Liverpool-pol - Los Blancanitos
11:00 Alki '07' - Vander Vela y Cia
 Larrutxupi - Vultur Gryphus
12:00 Amañako Zeni Taldea - Zergatik Ez
 Bar Arkupe - Ford Lerun

Igandea, 28

11:00 Majestades Satanicas - Bar Xare
 ZRU - Sin Perdon
12:00 Rayas de Amsterdam - F. Astigarraga
 Murruka - Aide Globun

Futbol 7 Txapelketa,

Unben (Eibar)

Larunbata, 27

9:00 Bar Gure Toki - Zordunak
 Bar Malape - Bar Amistad
10:00 Kama Sutra - Kadar
 Materias Peligrosas - Olaso F. C.
11:00 Lojantzi - AIK
 Pimpaos Hilbera - SAS
12:00 Inkision - Txiri Strike
 Invecibles.Txer - PAC

Igandea, 28

10:00 Bassano '353' - Ful Monti
 Aizkolariak - R. Oso Takata B.
11:00 Anorthosis - Ez Dok
 Guridi Taberna - Violet Kickers
12:00 Faustino VII - 1664 G.A.
 WWWinter-Medio.com - S. Vladikaskav

'Gelatxo' tarrak omenduko dituzte uztailaren 5ean

800 lagun elkartuko dira Kiroldegian izango den bazkari herrikoian

Uztailaren 5a egun handia izango da Pedro Sodupe 'Gelatxo'rentzat. Haritz Dantzari Taldeak 25 urte betetzen dituela-eta, Euskal Herrian trikitiaren munduan aitzindari izan diren 'Gelatxo' tarrak omentzeko jai handi bat antolatu da Trikiti Elkartearekin eta Ongarri Argazki Taldea, Udala eta Sallobenteko auzotarrekin batera. Iaz Paisaian Trikitilari Eguna ospatu zen eta Pedro Sodupe omendu zuten. J. Inazio Sarasuak esan bezala, "askotan kanpokoek estimatu arte ez dugu jakiten zer-nolako altxorrek dauzkagun herrian".

Horrela bada, uztailaren 5ean Pedro Sodupe, honen aita zena, Manuel, eta Pedroren anaia Lorentzo omenduko dituzte.

Manuel Sodupe jaio zela 110 urte bete dira aurten. "Gizon hau solteko dantza irakaslea zen, beste inork ez zeukan errepertorioa zuen. Pedrok, berriz, aitaren errepertorioa berreskuratzeaz gain, trikitirako piezak, dultzainarako eta bandarako pieza ugari ere errekuperatu zi-



P. Rubio Sallobenteko alkatea, 'Gelatxo' eta Ana Santolaya Kulturako zinegotzia.

tuen. Soinu handiarekin eta txikiarekin maixua zen, eta 'jazz-band'aren jaun eta jabe. Anaia Lorentzo askotan ibiltzen zen Pedrokekin erromerietan. Haritz Dantzari Taldeak, Trikitilari Elkarteak, Ongarri Argazki Taldeak, Udalak eta Sallobente auzokoez bat egin dute Pedro eta 'Gelatxo' tarrak omentzeko. Batetik, Ongarrik bildutako argazkiekin, Trikiti Elkarteak 'Gelatxo' tarrei buruzko libu-

rua argitaratu du. Honez gain, Ongarrik 'Gelatxo' tarren argazki erakusketa egingo du uztailaren 3tik 11ra bitartean. Erakusketa honekin batera, Trikitilari Elkartearen beste erakusketa bat egongo da: soinu, dultzaina, gramofono eta argazki zaharrei buruzkoa.

Uztailaren 5ean, 400 trikitilari baino gehiago etorriko dira 'Gelatxo' tarrak omentzeko. Beste ekitaldi eta opari askoren artean, Pedro Sodupek urrezko domina jasoko du alkatearen eskutik. Kiroldegian bazkari herrikoia egongo da eta 800 bat lagun elkartuko dira. Arratsalderako sekulako erromeria antolatu da. Trikitilari 'zaharrak' ez ezik (Maltzeta, Epelarre, Etxeberritxo, Laja,...) gazteak ere izango dira: Tapia ta Leturia, Alaitz eta Maider, Maixa eta Itziar, Imuntzo eta Beloki, Zabale anaiak, Aitor Furundarena,... Esan bezala, 400 inguru. Erromeria tipikoa izango da, dantzarako piezekin, alegia, eta trikitilari guztiak nahastuta eta bikotea aldatuz joko dute.

tsalderako sekulako erromeria antolatu da. Trikitilari 'zaharrak' ez ezik (Maltzeta, Epelarre, Etxeberritxo, Laja,...) gazteak ere izango dira: Tapia ta Leturia, Alaitz eta Maider, Maixa eta Itziar, Imuntzo eta Beloki, Zabale anaiak, Aitor Furundarena,... Esan bezala, 400 inguru. Erromeria tipikoa izango da, dantzarako piezekin, alegia, eta trikitilari guztiak nahastuta eta bikotea aldatuz joko dute.

San Juan suak, dantzaz eta kantuz lagunduta

Polita izan zen San Juan bezperan Plaza Handiak erakutsi zigun aurpegia. Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrena zela-eta, San Juan bezperarako ikuskin berezia antolatu zen. Gaueko 22:00etan eman ziztzaion hasiera saioari. Sua piztu aurretik *Itxaropena* abesbatzak bospasei euskal kanta eskaini zituen; gero, sua piztearekin batera, txistu doinuak gidari zituztela, Haritz Dantzari Taldeko dantzari gazteak irten ziren Plaza erdira suaren bueltan dantza egiteko. Eta ikuskinari begira ehundaka herritar, txaloak gogo onez eskainiz. Beste surik ere piztu zen Elgoibarren. Bazter askotan gazte eta ez hain gazteak suaren gainetik saltoka aritu ziren urteko gau majiko eta motzenean.



San Juanak Aitzolan

San Juan bezperako lehenengo txafliuak jaurti ondoren, ohiko San Juan zuhaitza landatu zuten al-tzolatarrak. Aurten beste urte batzuetan baino ekitaldi gutxiago antolatu dituztela esan digute antolatzaileek, "aste barruan tokatu baitira jaiak".



Euskaldunon hizkuntz eskubideak hainbat **PAPER** eta **AGIRI**ri dagokienean



JAIOTZA AGIRIAK

Jaiotzako dokumentazioa euskaraz egiteko eskubidea badaukagu. Inskripzioa, ordea, askoz zailagoa suerta daiteke, Erregistro Zibila Estatuari baitagokio. Iparraldean eta Nafarroako zonalde 'mixto'an eta ez 'vascofono'an ezin daiteke euskaraz inskribatu.

IZEN-DEITURAK

Euskal Herriko lurralde guztietan jar daitezke izenak euskaraz.

Eta erdaraz jarritako izena euskarara alda al daiteke?

Hegoaldean bai, eginpide labur baten bidez norberaren Erregistro Zibilean. Iparraldean, berriz, ezin da aldatu.

Eta abizenak gaurkotu al daitezke, euskarazko ortografian idatziz?

Hegoaldean bai, hainbat agiri aurkeztu behar dira baina ez dago batere eragozpenik. Iparraldean ezin da.

Eta erdal abizenak euskaratu al daitezke?

Hegoaldean bai, tramitazio baten bidez. Iparraldean ezin da.



NORTASUN AGIRIA ETA PASAPORTEA

Euskaraz lor al daitezke?

Hegoaldean, gaur egun, dokumentu hauek erdara hutsean bakarrik jaso daitezke. Halere, legeari kasu eginez gero, administrazioak paperak euskaraz ere luzatzeko obligazioa dauka. Iparraldean ezin da.

EZKONTZA

Ezkontza zibilarri dagokionean, euskara ofiziala den lurraldeetan epaileari eskatuz gero, euskaraz egin daiteke; epailea euskalduna ez bada, interpretea eska dezakegu. Iparraldean ofizialki ezin da euskaraz ezkondu.



INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza . . . 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español . . . 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki Irratia 943 74 34 74

26

ostirala

.....

18:30 ODOL ATERALDIA
 P. M. Urruzuno 8an

19:00 ALKOHOLIKO ANONIMO
Oen HITZALDI IREKIA
 Kultur Etxean

19:00 GAZTE ASANBLADA
ren BILERA
 Gaztetxean

20:00 KONTZERTUA
The body snatchers eta
Toxic Skueak
 Gaztetxean

22:15 ZINEA
 "Esfera"

27

larunbata

.....

12:00 ZAZPIK
Iren BILERA
 Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
 "Esfera"

19:30 GAZTE ASANBLADA
ren MANIFESTAZIOA
 Irteera Madalan

28

igandea

.....

19:30-22:15 ZINEA
 "Esfera"

29

astelehena

.....

22:15 ZINEA
 "Esfera"

1

asteazkena

.....

22:30 ZINEA
 (Izenburua zehaztu gabe)
 Plaza Handian
 Antolatzailea: Euskal
 Presoen Aldeko Plataforma
 Alguntzailea:
 Ongarri Zine Kluba

2

osteguna

.....

19:30 MAHAINGURUA
 Gaia: Euskal presoak
 Partehartzaileak: Salhaketa,
 Senideak eta preso ohi bat.
 Kultur Etxean
 Antolatzailea: Euskal
 Presoen Aldeko Plataforma

3

ostirala

.....

22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "Mercury Rising"
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Ongarri Zine Kluba

22:30 ANTZERKIA
 Antzeztaldea: Lakrikun
 Antzezlanak: "Zorioneko
 Oporrak"
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra

ZINEA



Zuzendaria: Barry Levinson.
Antzezleak: Dustin Hoffman, Sharon Stone, Samuel L. Jackson.

Esfera

Ozeano Pazifikokoan estralurtarren OVNI bat dago urazpian murgilduta. Aditu talde bat bertara doa ikerketa lanak egitera. Ikertzaileak espaziontziairen barrura sartzen dira eta esfera bat topatzen dute bertan. Ikertzen daudela, espaziontziairen barruan harrapatuta geratzen dira eta benetan gauza arraroak hasiko dira gertatzen.

SAN PEDROKO JAIAK

LARUNBATA, 27

16:00 Jaien hasiera kanpai jotze eta txaflligekin.

17:00 Haurrentzako jolasak.

18:30 Poniak eta zezenak.

21:00 Bertso afaria Andoni Egaña, Jesus M. Irazu eta Oihane Enbeitarekin. Gaijartzaile Ziarda.

24:00 Gaupasa Musutruk taldearekin.

Ordu berean, bolo tiraldiak. Sariak lehenengo laurentzat eta ustekabea bosgarrenarentzat.

Goizaldean, txokolatada.

IGANDEA, 28

12:00 Pilota partidua.

14:00 Jubilatuen bazkaria.

18:00 Idi-demak Elorrioko Ariantza, Barinagako Agorrixa eta Bermeoko Ramon Alegriarekin. Sariak: 115.000 pta., 110.000 pta. eta 100.000 pta.

Ondoren, orgatilarren zozketa.

Egun osoan zehar, Andoni eta Agurtzane **trikitilak**.

ASTELEHENA, 29

11:00 Prozesioa eta Meza Nagusia.

14:00 Auzotarren bazkaria.

Egun osoan zehar, Ion Ostolaza eta Unai Andonegi **trikitilariak**.

● Euskal Presoen Aldeko Herri Plataformak antolatutako ekintzak

“Euskal Presoak Euskal Herrira” sortu berri den Elgoibarko plataformak hainbat ekintza antolatu ditu datorren astebururako. Uztailaren lean, asteazkena, gaueko 22:30ean zine emanaldia izango da Plaza Handian Ongarri Zine Klubaren eskutik. Filmearen izenburua zehaztu gabe dago oraindik. Uztailaren 2an, osteguna, mahaingurua izango da Kultur Etxean arratsaldeko 19:30ean. Senideak Elkarteko kide batek, Salhaketa Ellkarteko Xabier Errok eta Oskar Garitano preso ohiak hartuko dute parte. Ostiralean, uztailak 3, Ekekei antzetzaldea eta Durangoko Institutuko antzerki taldeak kale antzerkia eskainiko dute arratsalde partera. Larunbatean, uztailak 4, eguerdian bertsolarien saioa eta Haritz Dantzari Taldekoen ikuskizuna izango da Plaza Handian. Ondoren, giza katea egingo da. Gauean, berriz, Gaztetxean musika jaialdia izango da.

● Autobusa Bilboko manifestaziorako

Elgoibarko HBk autobusa antolatu du bihar, hilak 27, Bilbon izango den manifestaziora joateko. Autobusa Plaza Handitik irtengo da arratsaldeko 16:00etan. “Konponbide demokratikoa orain” da manifestazioaren lema eta arratsaldeko 17:30ean hasiko da Bilbon.

T H A N D A H

FARMAZIAK

	Egunez	Gauzez
27	Etxeberria* (Santa Ana)	Zabaleta
28	Etxeberria* (Santa Ana)	Zabaleta
29	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
30	Escala	Escala
1	Bidasolo	Bidasolo
2	Etxeberria (Errosario kalean)	Etxeberria
3	Anduaga *(eguerdiko 2ak arte)	Anduaga

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

28 igandea Idarraga

UZTAILAK 3 OSTIRALA



LAKRIKUN antzerki taldea *Zorioneko oporrak*



ELGOIBARKO IZARRA K. E.

ELGOIBARKO UDALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



HERRIKO ANTZOKIAN 22:30ean

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

◆ Neska gaztea behar da tabernarako zapatuetan eta abuztuko oporteretan lan egiteko. Ogitartekoak egiten aditua. ☎ 943 74 37 71

◆ Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. ☎ 943 74 01 80

◆ ESKAERA ◆

◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo/eta umeak zein zaharraz zaintzeko. ☎ 943 74 21 88

◆ Neska euskalduna eskaintzen da uztaila eta abuztuan haurrak zaintzeko. ☎ 943 74 17 61 (Miriam)

◆ Uztail-abuztuan lan egingo nuke haurrak zaintzen edo tabernan. ☎ 943 74 43 16 (Marimar)

◆ Barne Merkataritzan titulatura eskaintzen da dendan lan egiteko Ermua, Eibar edo Elgoibarren. ☎ 943 74 10 09

◆ Emakumea eskaintzen da tabernan lan egiteko (esperientziarekin). Beste lan batzuk ere egingo nituzke. ☎ 943 74 15 74 (M. Carmen)

◆ Neska eskaintzen da pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko. Esperientzia daukat sukaldeko lanean. ☎ 943 75 51 93

Etxebizitzak

◆ Laredon, hondartza ertzean da goen apartamentua alokatzen dut. ☎ 943 79 52 80

◆ Jakan (Membrilleras), apartamentua salgai: bi gela, garajea eta trasteroa. ☎ 943 74 20 31

◆ Benidorm-eko Levanteko hondartzaren lehen ilaran apartamentua alokatzen da.. ☎ 943 74 20 31

◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Erdigunean. 2. pisua, ganbara eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83/ 74 18 34

◆ Etxea salgai Urasandin. 90 m2 ditu, sukaldea, egongela, 3 logela, bi komun, 3 terrazatxo eta ganbara. Bista ederra, eguzkitsua eta oso egoera onean. ☎ 943 75 52 15

◆ San Bartolome 4an pisua daukat alokatzeko. Azkenengo solairuan. ☎ 943 74 21 15

◆ Abuzturako pisua daukat alokatzeko Zumaian. Guztiz jantzita. ☎ 953 86 12 24

◆ Etxea salgai Soruluzen. 62 m2, eguzkitsua, egoera onean eta merkea. ☎ 943 12 18 20

◆ Etxe bat alokatzen dut Ubitarte plazan. ☎ 943 74 01 59

Partikularrak

◆ Frantseseko klase intentsiboak emango ditut uztailean. Oinarrizko maila. ☎ 943 74 04 59 / 19 24 59

◆ Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 13 34 (Andoni)

◆ Uztailean eta abuztuan marrazketa, fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 36 45 (Miguel. Eguerdiko 13:00etatik 15:00etara)

◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 07 86

◆ Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 00 98

◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. ☎ 943 75 50 35 (Imanol)

Bestelakoak

◆ Bi txakurkume oparitzen ditut, husky eta ehiza txakurren nahasketara dira. ☎ 943 74 29 47

◆ Astelehenean urrezko pultsera galdu nuen Urasandi inguruan. ☎ 943 74 31 07

◆ Cáritasek hozkailua, garbigailua eta sukaldea behar ditu. ☎ 943 74 15 09/ 74 12 57

◆ Zilarrezko kate bat topatu nuen igandean Urasandiko parkean. Udaltzaingoa laga dut.

◆ Errosario bat aurkitu dut Plaza Txiki inguruan. ☎ 943 74 41 32

◆ Urasandiko parkean umeen txandald txaketa berde-urdina hartu nuen konfusioz. Udaltzaingoa laga dut.

◆ Katu siamesa galdu dut Pedro Muguruza inguruan. Norbaitek topatu badu mesedez dei dezala ☎ 943 74 17 87 zenbakira.

Garajeak

◆ Garajea hartuko nuke alokairuan Urasandin. ☎ 943 74 17 01 (Aitor)

◆ Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. ☎ 943 74 12 04

◆ Garajea alokatzen da, Pista Beltzaren azpian. ☎ 943 74 14 89

◆ Marradun garajea alokatzen da Pista Beltzean 5.000 ptan. hileko. ☎ 943 74 00 70 (gauzez)

◆ Garaje itxia saltzen da Arregitorren. ☎ 943 75 51 77 (Tere)

◆ Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederen. ☎ 943 74 26 94

Salerosketak

◆ SALDU ◆

◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estrenatu gabe. ☎ 943 74 17 01 (Asier)

◆ Peugeot 309 diesela, SRD, SS-AD salgai. Egoera oso onean. Estrak eta garantia. ☎ 943 74 11 87

◆ Motozerra salgai. Onix 2 markakoa. 1.000 km. ditu. Ondo zainduta. ☎ 943 74 29 32

◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 943 74 39 75 (Arrate)

◆ Mendiko bizikleta berria salgai. Orbea averange, eskurik gabe (alhivio). ☎ 74 39 53

◆ Arropak gordetzeko 2 metroko armarua salgai ispiluekin eta kaxoekin. Komoda ere bai. ☎ 943 74 39 63 (Alicia)

◆ Opel Kadett autoa saltzen dut. Egoera onean dago. ☎ 943 74 40 56 (Andoni)

◆ AEG labadora, hozkailua eta sukalde mistoa labe elektrikoarekin saltzen ditut, portabonbonarekin. Egoera onean. ☎ 943 74 10 44 (Gauzez)

◆ Errepideko bizikleta salgai. Merida, Shimano 105. Prezio interesgarria. ☎ 943 74 07 85

Agurrak

◆ Zorionak **Iratxe Garateri** hilaren 23an 12 urte bete zituelako. Guraso, ama eta anai-arreben partez.

◆ Zorionak **Kimetz Iturrinori** ekainaren 14an 10 urte bete zituelako.

◆ Zorionak **Maria Arrietari** pianoa oso ondo jotzen duelako. Lagunen partez eta bereziki Ileniaren partez.

◆ Zorionak **Luia Segurari** hilaren 16an 10 urte bete zituelako. Lara, Jone eta Itxaroren partez.

◆ Zorionak **Ainhoa Mendibili** bere 10. urtebetetze egunean Jone, Lara eta Itxaroren partez.

◆ Zorionak **Irati Bollar-i** 10 urte beteko dituelako. Musu bat Lara, Jone eta Itxaroren partez.



◆ Zorionak **Nicolas Molinari** gaur, hilak 26, urteak bete dituelako. Emazte eta semeen partez.



◆ Zorionak **Oihana Unzetabarrenetxe** gaur, ekainak 26, 13 urte bete dituelako. Guraso, anai-arreba Aitor eta Nora

eta aitona-amonaren partez. Zorionak, baita ere, bere lagun Noraren partez.

◆ Zorionak **Alazneri** ekainaren 30ean 6 urte beteko dituelako. Familia osoaren partez.



◆ Zorionak **Amaia!** Patata. It's up to you. Iker, Ander, Aitor eta besteak.



◆ Zorionak **Goraneri** ekainaren 28an 7 urte beteko dituelako eta beti bezain pinpilipauxa jarrai dezala. Familia osoa eta, batez ere, ahizpa Eneritzen partez.



◆ Zorionak **Gorka Bereziartuari** ekainaren 29an 4 urte beteko dituelako. Guraso, Ion eta Nerearen partez. Zorionak

baita ere eta belarririk tirakada haundiak Elenaren partez.

◆ Zorionak **Iosu Abad-i** hilaren 29an 10 urte beteko dituelako. Guraso, amama eta Naiaren partez. Zorionak, baita ere, Trini eta familiaren partez. Ondo pasa Aubixan!



◆ Zorionak **Ivan Ondarzari** hilaren 23an 19 urte bete zituelako. Gurasoen partez.



◆ Zorionak **Izaskun Estibarriz** ekainaren 22an urteak bete zituelako. Txanpainaren detalltxoa ondo egon zen baina datorren urtean gehiago bidali. Bada-kizu botila bana behar dugula gutxienez. Nor naizen zuk asmatu beharko duzu.

Aldibi

ALDIBI AUTOAK



ALDIKAR AUTOAK, S. L.



GALLOPER

ZATOZ, EZ ZARA DAMUTUKO

Olaso kalea, 23 - 20870 **ELGOIBAR**
Tel: 943 74 20 37 - Faxa: 943 74 35 24
(Lehen Autos Artetxe)

Zigarrola kalea, 1 - 20500 **ARRASATE**
Tel: 943 71 20 02 - Faxa: 943 79 65 65

ZEZEN-BIDE

AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



*0% 10eko deskontua
Gazte Txartelarekin*


San Frantzisko, 43 – Tel: 943 74 27 20 – ELGOIBAR ■ Zezenbide,1-1 – Tel: 943 20 34 45 – EIBAR

GARAY



San Frantzisko, 9 • Tel: 943 74 13 92

Etengabe berritzen eta modernizatzen Kalitatearen eta bezeroaren mesedetan



Oilasko betea saltsa



Saltxitxak



San Jakoboak

AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA
AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA

AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA

AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA

AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA

AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA
AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA
AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA
AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA
AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA	AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA

AGENCIJA ZA KONTROL IZJAVA O KVALITETI IZJAVIŠTA

Haragiaren kalitatea ziurtatzen duen kontrol-agiria daukagu